



ikastolak



SAN FERMIN IKASTOLA
ZIZUR



Alboan-eko kideek antolatu duten kanpaina parte hartuko dugu.

Gatazkarik gabeko teknologia

GATAZKARIK GABEKO TEKNOLOGIAREN ALDEKO EGITASMOA
BURUTZEN ARI DIRA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEAK

Testua eta argazkia San Fermin Ikastola

DBHko 4. mailako ikasleekin Gatazkarik Gabeko Teknologiaren aldeko proiektua gauzatzen ari da Alboan Gobernu Kanpoko Erakundearekin elkarlanean. Egitasmo honen iturburua telebista kate bateko eVictims Salvadosoko dokumentalaren emankizunean kokatu behar da. Bertan, Kongon Koltanaren meategietan bizitzen ari diren egoeraz mintzatzaren ziren, hango egoera orokorra eta bereziki, emakumeena islatuz. Hizlarien artean, Maria Alvarez, ikastolako ama bat, bertan azaltzen zela ikusirik, DBHko maila horretako Etikako eskoletan hau guztia lantzea erabaki genuen. Gaiaren interesa, ikasleengan izan dezakeen gertuta-

suneta eta guraso honen parte hartzeko aukera ikusirik, proiektua martxan jarri zen.

Egitasmoaren helburua, gaur egungo gure gizartearen teknologiaren kontsumoak dauzkan ondorio larrien inguruan ikasleak kontzientzia hartzea da. Hau da, egunero kontsumitzen ditugun gailuak orokorrean eta mugikorrak bereziki, zein jatorri duten eta hauen ustiatzek zer nolako bizi-baldintzak ezartzen dituen gure planetako zenbait lurraldetan ezagutzea da. Bide horretan, teknologiaren jatorrian, eta honen erabilerak, erantzukizun moral bat ere baduela ikasita, laugarren mailako Etikako eskoletan, haursnarketa prozesu bat bideratu genuen.

Baina, ekimena ez da hausnarketa hutsean geratu eta, honen ostean, proiektuaren bigarren zatian, ikasleek egoera honen aurrean aldaketak egiteko izan ditzaketen aukerak oihartzua da. Izan ere, norbanakoak gauza txikiak eginez, aldaketa handiago bat lor daitekeela diote Alboan-eko kideek eta horretarako, hain zuzen ere, Gobernu Kanpoko Erakunde honen Gatazkarik gabeko teknologia kanpaina parte hartzea erabaki da gure ikastolan.

Lehen pasua, mugikorrak zaharren bilketa bat antolatzea izango da, jasotako material guztia erakunde honen esku utziz. Bestalde, sinadura bilketa bat ere bultzatuko da Ikastolan, Europako industriak ez ditzan

gatazka armatuak sustengatzen dituen salerosketako mineralik erabil. Ekintza hauek aurrera eramateko proiektu sakonago bat garatu dute, ekintza teoriko ezberdinak burutuz eta praktika hauek kalteetako herri hauekako testuinguru sozial eta ekonomikoa ezagut dezaten. Horretarako, Maria Alvarez eta Ani Urretavizkayak, Alboan-eko hezkuntza arduradunek, adibidez, hitzaldiak eskaini dizkiete ikasleei, egoeraren berri izan dezaten, besteak beste, bertan egondako pertsona baten esperientzia ezagutuz.

Funtsean, egitasmo honen helburua ikasleriak gizarte aldaketak burutzeko beraiek duten gaitasuna eta ardura ezagutzea da. Haren bidez, teoria ezagutzeaz gainera, egunerokotasunean praktika ere bidera dezakegula ohar daitezke. Eta hori nola egiten da? Bada, hasteko, gure kontsumoa erregulatuz edo erosten dugun hori nondik datorren eta zer nolako baldintzetan ekoiztu den galdetuz. ●

San Fermin Ikastolako ikasleak, Norvegiara

Bigarren Hezkuntzako 4. mailako eta Batxilergoko ikasleak joango dira Sykkylven herrira

IRUÑEA – Ikastolak aurrera darrai aurtur ere Erasmus + egitasmoaren baitan kokatzen den Crossroads with the future trukaketa-programarekin. Hiru urteko iraupena du egitasmo honek eta Islandia, Ingalaterra, Norvegia, Belgika eta Euskal Herriko hainbat ikastetxe partehartzen dute. Joan den urriaren 23tik 30era Waregemera joan ziren San Fermin Ikastolako ikasleak, eta hurrengo helmuga Norvegia izanen da, datorren martxoaren 26tik apirilaren 2ra.

Programaren helburua nagusia teknologia berriak ikasgelan aplikatzea da, eta bai ikasleak, bai irakasleak trebatuko dira zeregin horretan. Metodologia taxutzeko, enpresek dituzten beharrak eta behar dituzten soluzioak hartu dira ardatz. Bide horretan, arlo ugari jorratzen dira: ekintzailetza, gatazken konponketa, soluzioen bilaketa, gaitasun digital eta linguistikoak, eta abar. Ikaskuntza, beraz, diziplinartekoa eta diziplina anitzekoa izanen da.

Norvegian kokatzen den Sykkylven herrian oraingoan garatuko duten egitasmoak berriz, Flipped classroom izenburua du. Horretarako, joan aurretik, ikasleak saio bat grabatu dute gurean eta Office Mix tresna erabiltzen ikasi dute, besteak beste. Gainera, egitasmoak irauten duen bitartean, bertan parte hartzen ari diren ikasle guztien artean blog interesgarria sortzen ari dira: <http://erasmuscrossroad.classy.be>


Guztira, hamabost ikasleak eta bi irakasleak bidaiatuko dute Norvegiara, gehienak DBHko 4. mailakoak, baina baita batxilergoko lehen eta bigarren mailakoak ere. – San Fermin Ikastola

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Ikastolako zein ama agertu zen Salvados programaren dokumentalean?
 2. Nola izena du ALBOANeko kanpainak?
 3. Noiz joango dira Norvegiara gure ikasleak?
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Janire Otxandorena (Tantirumairu Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Olaia Mecoqui (Baztan Ikastola).
INTER-SPORT IRABIA (baloia): Ekaitz Baigorri (Ibaialde Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.